

Elgoibar - 1279. zerb.
XX. urtea - 2023-03-17

TOKIKOM



BARREN

Sorginen akelarrea

Olaia Irigoien



EDERTASUNA ZABALDU



Gipuzkoa poesiaz bete nahi dugu eta zurekin kontaktzen dugu hori lortzeko.

MARTXOAREN 15etik 21era

Partekatu edertasuna zure sare sozialetan eta berehalako mezularitzako aplikazioetan: poesia, argazkiak, poema irakurketak, bideo sortzaileak... Irudimena da muga.

#EdertasunaZabaldu #PoesiarenEguna

Poesiaren
Eguna

Martxoak 21

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanbide, Oinezaketa, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



@GipuzkoaKultura

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Ane Astiazaran

Itzultzailea

Barre bai, baina ez hainbeste



**"Badirudi gure literaturak
umorea egiteko
baino umoreari buruz
hausnartzeko balio duela"**

Gogoko dut umore absurdoa, umore azkarra, umore tontoa, kuadrillako umorea. Gogoko dut barre egitea, barre eginaraztea. Gogoko dut barre gogotik egitea, neure buruari barre egitea. Gogoko dut barre urduria, barre zaratosoa, barre barrea. Baina gutxitan egiten dut barre liburu bat irakurtzen ari naizenean. Barre barre. Irribarrerren batek egiten dit ihes noizbehinka, gustuko esaldiren bat aurkitzean, gero datorren zerbait asmatzen dudanean, neure-neurea (izan) dudana bizipen edo emozioen batekin topo egiten dudanean. Baina barre barre gutxitan. Oso gutxitan. Cristina Moralesen *Lectura fácil* datorrit burura (ez da barre erraza, baina zinez gomendatzen dizut), edo *La conjura de los necios* (baten batek gomendatuko zizun honezkero), *El abuelo que saltó por la ventana y se largó* agian?

Ez da ezer berria esatera noana, eta seguraski norbaiti irribarrea aterako zaio ondoren datorrena asmatzean, baina halako liburuak nahi ditut euskal literaturan. Badirudi gure literaturak umorea egiteko baino umoreari buruz hausnartzeko balio duela, gure gutxiagotasun konplexutik izango da, euskara hizkuntza serioa dela demostratu behar horretatik edo. Auskalo. Argi dudana bakarra da barre egin nahi dudala. Eta badakit euskaraz barre eginarazten duten liburuak egon badaudela, baina inor gutxi gomendatu dizkit. Beraz, gure esperientzia literario indibidualak kolektibo bilakatzeko erabil dezakegu sortu berri duten *paperjale.eus* webgunea, edo twitterra, edo taberna, edo kalea. Baina egin dezagun, ez?



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Ospitalera bideko lanen inguruan segurtasun falta dago:

"Lotsagarria da ospitalerako igogailuaren lanen inguruko segurtasun neurriak zer baldintzatan dauden. Hesi guztiak botata daude, edozeinek min hartzeko moduan. Mendaroko Udalari eskatzen diogu gutxieneko segurtasun neurriak ezartzeko eta mantentzeko".



Herri Eskolako patioiko argia piztuta egoten da inor ez dagoenean ere:

"Igande iluntzean Herri Eskola itxita zegoen, eta hala ere, patioiko argiak piztuta zeuden. Energiaren gehiegizko kontsumoaren garaian gauden honetan, horrelakoak zaindu egin behar direla iruditzen zait".



Indarkeria matxistaren eta LGTBIfobikoaren aurkako panelari eraso diote:

"Elgoibarrek indarkeria matxista oro gaitzesten duela jartzen duen kartelari eraso egin diote. Herrirako hiru sarreratan daude horrelako kartelak, eta Eibartik Elgoibarrerako bidean dagoena ezabatu dute, noiz eta martxoaren 8an, gainera. Jendeak ez du ezer errespetatzen. Zenbat lan daukagun egiteko oraindik!".



Eskerrik asko Ramadanari buruzko hitzaldia antolatzeagatik:

"Benetan interesgarria larunbatean izan genuen Ramadanari buruzko topaketa. Interesa piztu zuen herrian eta aretoa goraino bete zen. Kulturarteko solasaldi aberasgarria, lagunkoia, familiarra... izan zen. Hitzaldiaren osteko mokadutxoak ere aukera eman zuen harreman sare berriak sortzeko. Mimo handiz antolatutako ekintza izan zela nabari zen. Eskerrik asko eta txalo bero bat antolatzaileei".



100 bat lagunek hartu dute parte umeentzako zuhaitz landaketan



Baso Biziak taldeak umeentzako zuhaitz landaketa antolatu zuen joan zen domekarako, Morkaikorekin eta Atxutxiamaikarekin elkarlanean. 100 bat lagunek hartu zuten parte, eta arduradunek jakinarazi dute batzuk kanpoan geratu zirela, logistika arazoengatik. Barkamena eskatu diete horiei, eta hurrengoan horrelakorik ez

gertatzeko ahaleginak egingo dituztela jakinarazi dute. Era berean, eskerrak eman dizkiete Lurguia Fundazioari, lurjabeei, Soralueko eta Eibarko Baso Biziak elkarteei eta Bellota enpresari tresna eta materialak lagatzearren, hamaiketako prestatu zutenei, Upagoitxiko Iñakiri eta Kutxari, zuhaitzak emateagatik.

24/7 Plataformak eurekin biltzeko eskaera formala egin die talde politikoei

Elgoibarko Udalean ordezkaritza duten talde guztiekin bildu nahi du 24/7 Plataformak, "Osakidetzak ezarritako murrizketetatik eratorritako anbulatorioaren egungo egoera aztertzeko eta, aldi berean, osasun zentroan etenik gabeko arreta zerbitzua berreskuratzeko". Urtarrilaren 31n Herriko Antzokian egin zuten batzarrean erabaki zuten Elgoibarko Udalean ordezkatuta dauden talde politikoekin biltzea, eta aste honetan eskaera formala egin dute, Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ).



'Nire aitak ere bere denbora eskaintzen dit' marrazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak

Elgoibarko Berdintasun Sailak *Nire aitak ere bere denbora eskaintzen dit* aita parekideen lehen kanpaina bultzatu du, Aitaren Egunaren bueltan, eta horren barruan, marrazki lehiaketa antolatu dute. Hiru sail bereiztu dituzte: HH-ko 2. zikloko ikasleena; LH1-2-3 mailetako ikasleena eta LH4-5-6. mailetakoena. Marrazkiaren kalitate piktorikoa, originaltasuna mezua baloratuko dituzte. Marrazkiak entregatzeko epea apirilaren 3an amaituko da, 15:00etan. Berdintasun Sailean

(Aita Agirre 3) edo berdintasuna@elgoibar.eus helbidera eskaneatuta bidalita aurkeztu daitezke lanak. Saridunek Txankakuako dendetan gastatzeko erosketa bonoak jasoko dituzte.

Lehiaketaz gain *Aitatasunak* ikastaroa eskainiko dute Lilan, apirilean eta maiatzean. Mikel Arakistain On: Giz/Ez: Berdin elkarteko kideak emango ditu saioak. Izena emateko honako lotura honetan sartu behar da: <https://labur.eus/lila2023>

San Lazaron adinekoentzako etxebizitzak egiteko aurreproiektua idazten ari da Elgoibarko Udala

Udaletik zabaldu dute Errezabal egoitza 2024. urtea hasieran eraikitzen hastea aurreikusi dutela eta San Lazarako egoiliarak zentro horretara lekualdatuko dituztela. Elgoibarko Udalak lehentasunezkoztat jo du San Lazaro eraikina udalerriko adinekoentzako baliabidea izaten jarraitzea. Hori dela eta, lehen planteamendu bat egingo du adinekoentzako aisialdirako/sozializatorako

gune bat eta adinekoentzako etxebizitzak egokitu ahal izateko. Aurreproiektua Errotu taldeak egingo du, eta Udalak 13.900 euro + BEZ bideratuko ditu horretarako. Ane Beitia alkateak esan du lehen urratsak ematen ari direla San Lazaro diseinatzeke, eta epe ertain-luzera, gutxi gorabeherako kostuak eta gauzatze-faseak zeintzuk eta zenbatekoak izango diren aztertzen ari direla, proiektua gauzatu ahal izateko.

Ariana Nogales izango da PSE-EEren alkategaia

Ariana Nogales izango da maiatzaren 28ko Udal Hauteskundeetarako Elgoibarko PSE-EEren alkategaia. Nogales 2020ko urrian sartu zen Udalbatzan, Fernando Suarezren lekuan. Nogalesek Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua ikasi zuen, Aholkularitza eta Kontsultoretza juridiko-laboralean masterra du, eta giza baliabideetako teknikari gisa lan egiten du. "Ilusioz eta erantzukizunez" hartu du izendapena.



ura URAREN EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DEL AGUA

EUSKADIKO ITUN BERDEA

EUSKO JARDUARITZA GOBERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko Emakume Chef Orena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus

Bi gizon atxilotu zituzten eguenean Mendaron, bi familiaren arteko liskar gogorrean



Herriko bi familiaren arteko liskarra izan zen joan zen eguenean Mendaron, Herriko Enparantzan. Haurren bila eskolara zihoazen bi emakumeren artean hasi zen eztabaida eta haien senarrek eman zioten errematea, goxoki denda batean. Gizonetako batek katana batekin egin zion aurre besteari eta goxoki dendan itxi zen bestea. Beren onetik irtenda jardun ziren biak lekukoek emandako testigantzen arabera. Ikaratuta alde egitea lortu zuen goxoki dendako langileak eta barruan itxi zen gizonetako kalte materialak eragin zituen denda barruan. 12:30ak aldera gertatu zen liskarra, eskola-umeak bazkaltzera irten berri zirenean, eta lekuko ugari izan zituen gertaerak. Ertzaintzak bi gizonak atxilotu zituen, arma zuriak erabiltzea eta dendan kalteak eragitea egotzita. Kalean daude biak.

Whatsapp Business aplikazioari buruzko ikastaroa, hilaren 21ean

Whatsapp mezularitza-zerbitzuak negozioetara bideratutako bertsioa da Whatsapp Business aplikazioa. Enpresa askorentzat bezeroekin harremantzeko kanal interesgarria dela-eta, erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatu dute Debegesak eta Elgoibarko Udalak. Hilaren 21ean izango da, 15:00etatik 16:30era, Aita Agirre kulturgunean, doan. Izena emateko: <https://labur.eus/OLZsG>. Informazio gehiagorako Debegesara deitu daiteke: 943 820 110.

Langabeziak gora egin du otsailean, Elgoibarren eta Mendaron

Otsaileko datuen arabera, 2.648 langabe daude Debabarrenean, urtarrilean baino 38 gehiago. Eskualdeko langabezia-tasa %10,10ekoa da. Debak dauka langabezia-tasarik txikiena (%6,40 / 167 langabe) eta Sorluzek, aldiz, handiena (%12,49 / 233 langabe). Hain zuzen, Eibar (%11,72 / 1.488) eta Sorluzen izan ezik, gainontzeko herri guztietan langabezia-tasa %10etik beherakoa da gure bailaran. Elgoibarren aurreko hilean baino sei langabe gehiago zenbatu dituzte (481) eta beste horrenbeste Mendaron (82). Elgoibarren %8,87koa da langabezia-tasa eta Mendaron, berriz, %8,07koa. Eskualdeko herri guztietan egin du gora langabezia-tasak otsailean, Sorluzen eta Mutrikun izan ezik. Mutrikun %7,59koa da (197).

Auto hibrido bat erosiko du Elgoibarko Udalak Udaltzaingorentzat



Ia 300.000 kilometro eginak dituen udaltzainen ibilgailu bat ordezkatzeko auto hibrido berri bat erosiko du Udalak. Ingurumena babestearen aldeko apustua egin dutela azaldu dute, eta CO2 isuriak eta funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren kontsumoak eta kostuak murrizteko, motor elektrikoa eta motor termikoa izango ditu autoak. 4x4 ibilgailua izango da, bost atekoa eta SUV motakoa, gasolina eta elektrizitatea erabiltzen dituen hibridoa, berez kargatzen dena. Aurrekontua 35.000 eurokoa da (BEZ gabe). Martxoaren 16ra arte aurkeztu daitezke eskaintzak.

1.080 euroko pentsioa aldarrikatzeko itxialdi eta gose greban hartu du parte Jose Javier Arregik

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak hainbat ekitaldi egin ditu aste honetan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzeko. Ekitaldien artean, itxialdia eta gose greba egin dute Bilbon pentsiodunek, tartean Jose Javier Arregi elgoibartarrak. Horrez gain, hitzaldiak, mahai-inguruak eta bestelako mobilizazioak egin dituzte aste osoan zehar, eta bihar bukatuko dute asteko protesta, Bilbon egingo duten manifestazioarekin. 12:00etan izango da, Plaza eliptikotik abiatuta.

Pentsiodunek komunikabideetara bidalitako ohar batean azaldu dutenez, Hego Euskal Herriko pentsioak %8,5 igo arren, pentsioen %69 ez dira hileko 1.000 eurora iristen, eta horietatik %77 emakumeenak dira. Inflazio



handiak milaka pentsiodunen egoera okertu duela azpimarratu dute. Horrekin batera, politika publikoen eta bereziki zerbitzu soziosanitarioen okertzea ere salatu dute.

Elgoibarko EAJK aurkeztu du Udal Hauteskundeetarako hautagaitza



Atzo arratsaldean egin zuen Elgoibarko EAJK maiatzaren 28ko Udal Hauteskundeetarako hautagaitzaren aurkezpena. Maialen Gurrutxaga Uranga alkategaia eta Ion Zubiaurre Ros zerrendako bigarrena aurkeztuta zituzten

dagoeneko, eta atzo eman zituzten gainerakoen izenak: Silvia Gabiola, Pilar Iranzo, Iñigo Loiola, Aitor Iriondo, Andrea Arriola, Atsegin Uzuriaga, Ricardo Astigarraga eta Ana Santolaya.



**Aukera paregabea
sukalderako
nahiz jangelarako
mahai zabalgarri
eta aulki tolesgarri
eta pilagarrietan.**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Altzola eta Mendaro lotuko lituzkeen bidegorria eraikitzeko proposamena aurkeztu dute bi udalek

Elgoibarko Udalak eta Mendarokoak Altzola eta Mendaro lotzeko bidegorriaren proiektu-zirriborria idatzi dute, eta joan zen astean aurkeztu zuten, Altzolan, Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Josu Arraiz Hirigintza zinegotziak eta Iñaki Arregi Mendaroko alkateak. Altzola eta Mendaro bidegorritz lotzeko aukera ezberdinak daudela azaldu zuten, eta Foru Aldundiak hasiera batean beste proiektu bat aurkeztu bazuen ere, beste alternatiba bat proposatu nahi dute bi Udalek Mugikortasunerako Departamentuan: Altzolatik Mendarora, ezker aldetik eraikitzea bidegorria, autobidearen eta 634 errepidearen artean hiru metro zabaleko pasealekua eraikita. 1,67 kilometro luzeko bidegorria litzateke eta egindako estimazioen arabera, 3 milioi euroko kostua izango luke. Sarrera Altzolako hilerri ondotik egitea aztertu dute beren proposamenean, eta azpimarratu dute horrek bidea emango lukeela hilerriko arrapalaren sestra ere egokitzeko. Proposamena da aurkeztu



dutena. Aldundiarekin adostu behar dute orain trazatua, eta adostutakoan, proiektua idaztea lizitaziora atera beharko dute gero, eta behin idatzita dagoenean, exekuzio proiektua lizitatu.

Ermua eta Elgoibar arteko konexioa egina dagoela nabarmendu zuen Ane Beitia alkateak eta lanean jarraitzeko konpromisoa dutela zehaztu zuen, Elgoibar eta Mendaro Deba-Mutrikurekin eta Soralezekin batzeko.

Zapatura arteko epea dago Elgoibarko EHBilduren Udal zerrenda berresteko



Elgoibarko EHBilduk Herri Batzarra egin zuen martitzenean, eta beste hainbat konturen artean, maiatzaren 28rako Udal Hautekondeetarako hautagaien izenak eman zituzten. Orain, zerrenda hori berresteko epea zabaldu dute. Aurrez-aurre zein telematikoki egongo da bozketan parte hartzeko aukera. Internetez *Elkarrekin.ehbildu.eus* helbidean erregistratua eman daiteke botoa, eta aurrez aurre egin nahi duenak Bilgunean egin beharko du. Gaur goizean zehar irekita egongo da Bilgunea, eta arratsaldean 19:00etatik 20:00etara. Bihar, berriz, 10:00etatik 12:00etara.

Aitziber Aranberri alkategaia baikor agertu zen batzarrean: "Guztion artean proiektu sendo eta egingarria lortu dugu. Ez hori bakarrik, proposatutako hautagai-zerrendak badu gogoia eta gaitasuna egitasmo hori praktikan jarri eta herria hobetzeko. Garbi dago: guk ez badugu egiten, ez du inork egingo". Elgoibarrek hobera egitea posible dela iritziaraz "herri-proiektu sendo eta egingarria" lantzen aritu direla gaineratu zuen. "Etokizunerako Elgoibar bizigarriago eta kohesionatuagoa bilatuko du ezkerreko independentismoak".

OLAIA IRIGOIEN

Editorea

✍️ Ainhoa Andonegi

Itzulpengintza ikastera joan zen Olaia Irigoien (Elgoibar, 1996) Bartzelonara 2014an, eta tarteka herrira itzuli den arren, han bizi da gaur egun. Argitaletxe batentzako lanak egiten dituen enpresa batean egiten du lan, eta orain bere lehenengo liburua atera berri du: 'Inesa Gaxen'. Umeentzako liburu ilustratua da, eta momentuz gaztelaniaz dagoen arren, euskaraz ere argitaratzea gustatuko litzaioke.



“Umetako ametsa bete dut”

Zer dela-eta hartu zenuen Bartzelonarako bidea?

Batxilergoa amaitu ostean, Itzulpengintza ikasi nahi nuen, eta bi aukera neuzkan: Gasteiz edo Bartzelona. Bietan egin nuen proba, eta Bartzelonara joatea erabaki nuen. Hizkuntzak betidanik gustatu izan zaizkit, eta ingelesa eta gaztelania irakasten aritu izan naiz akademia batean. Pandemia baino hilabete aurretik Elgoibarrera itzuli nintzen, ez nekielako zer egin. Ikasten jarraitu nahi nuen, baina ez neukan argi zer ikasi nahi nuen. Hamar bat hilabetez egon nintzen etxean, eta Donostian jardun nintzen itzultzaile lanetan. Baina, niri liburuen edizioa interesatu izan zait beti, eta alor horretan masterra egitea erabaki nuen. Iaz itzuli nintzen Bartzelonara masterra egitera, eta momentuz, hemen geratu naiz.

Hizkuntzak gustuko dituzula esan duzu eta japoniera ere ikasten aritu zarela.

Bai, betidanik gustatu izan zaizkit. Katalana ere ikasi dut eta C1 mailako azterketa gainditu

dit. Euskara, ingelesa eta gaztelania dominatzen ditut, eta italieraz ere defendatzen naiz. *Au-pair* lanetan egon nintzen han hilabetez, eta gero jarraitu nuen akademian ikasten; beraz, defenditzen naiz. Baina hizkuntza desberdin bat ikasi nahi nuen, eta japoniera aukeratu nuen. Alemanierak ez nau erakartzen eta frantsesarekin ere aspertuta nengo. Txineraren soinua ere ez zait gustatzen, eta japoniera aukeratu nuen. Itzulpengintzan hiru hizkuntza aukeratu behar dira, eta hori izan zen niretzako hirugarren hizkuntza. Aitortu behar dut tortura japoniarra izan zela. Oso zaila egin zitzaidan. Hitz egiteko eta ulertzeko moldatzen nintzen, baina idaztea oso zaila egiten zitzaidan. Erasmus programarekin Canterburyra (Ingalaterra) joan nintzen hirugarren maila egitera eta han tokatu zitzaidan japoniera irakaslea oso zorrotza zen. Lau urtez aritu nintzen japoniera ikasten, baina konturatu nintzen hizkuntza hori ez zela niretzako modukoa.

Itzulpengintza bukatu eta masterra egin zenuen liburuen ediziozintzan. Zertan diharduzu orain?

Argitaletxe bati edizio zerbitzua ematen dion enpresa batean egiten dut lan. Argitaletxe batzuek ezin izaten dute lan guztia egin eta lan batzuk kanpora ateratzen dituzte. Guk argitaletxe baten lan berbera egiten dugu, baina ez dugu erabakitzen zer argitaratu eta zer ez. Hori da diferentzia. Itzultzaileak bilatzen ditugu, zuzentzaileak, diseinuaren parte bat ere egiten dugu, baina ni batez ere liburu bat ateratzeko prozesuaren kudeaketaz arduratzen naiz.

Zure estreinako liburua kaleratu duzu: 'Inesa Gaxen'. Zertan datza?

6-8 urteko umeentzako irakurketa errazeko liburu ilustratu bat da. Praktikak egin nituen Adapta izeneko argitaletxe txiki batean, eta mota honetako liburuak argitaratzen dituzte katalanez, galegoz, gaztelaniaz eta euskaraz. Masterreko praktiken barruan sortu zitzaidan umeentzako ipuin ilustratuen bilduma bat egitea, eta liburu hau da bilduma horretako lehenengoa. Euskal Herrian eta euskaraz saltzea zen hasierako asmoa, baina Euskal Herriko aurtengo publikazioen barruan ez zioten lekurik ikusi nire proiektuari. Azkenean, Adaptarekin kaleratzea lortu dut, Akelarreabenturas izeneko bilduma batean, baina gaztelaniaz. Historiako sorginen biografiak eta abenturak dira. Inesa Gaxen XVII. mendean Nafarroa Beherean jaiotako emakumea izan zen. 18 urte zituela sorgin zela salatu zuten, eta ihesi ibili behar izan zuen. Bost liburu argitaratzeko asmoa daukat, bost sorgin historikoren biografian oinarrituta. Inesa euskalduna da, beste bat Aragoikoa da, bestea galiziarra, Kanariar Uharteetako laugarrena eta kataluniarra beste bat. Argitaletxe txikia da Adapta eta momentuz gaztelaniaz bakarrik argitaratu didate, baina hemendik urtebetera edo gustatuko litzaidake *Inesa Gaxen* euskaraz ere kaleratzea. Bigarren liburuko protagonista Elisabeth Martí izango da, emakume kataluniarra, eta hain justu ere San Jordi Egunean kaleratuko dugu, apirilaren 23an, katalanez. Gironako Viladrau herrian jaio zen Martí. Herri oso txikia da Viladrau,

*"Ni biografia zalea naiz,
baina umeentzako bilduma denez,
abenturekin tartekatzeko
eskatu zidaten"*

eta garai batean 14 sorgin hil zituzten bertan. Europako sorgin hilketa handienetarikoa izan zen, eta 14 sorgin horien izenak ere aipatzen dira liburuan. Larrosa baten bueltan osatu dut istorioa, San Jordi Egunean larrosak ere garrantzi handia duelako. Irailean kaleratuko dut hirugarrena, baina sorginaren biografia modura beharrean, abentura moduan idatziko dut. Ni biografia zalea naiz, baina umeentzako bilduma denez, abenturekin tartekatzeko eskatu zidaten.

Zer izan da zuretzat lehenengo liburu hau eskuartearen hartzea?

Beti gustatu izan zait idaztea, eta liburu honekin nire umetako ametsa bete dut. Ipuin lehiaketa askotara aurkeztu izan naiz, askotan inori ezer esan gabe, eta sariren batzuk ere irabazi izan ditut. Hasieran lotsa ematen zidan esateak ere. Ikastolan ipuin bat idazteko eskatzen zigutenean nire gelakoek beti galdetzen zuten zenbat lerrokoa izan behar zen gutxienez, eta nik beti askoz luzeago idazten nuen. Halako batean hasi nintzen onartzen nire zaletasuna. Niretzako oso hunkigarria



izan da, batez ere, etxekeekin konpartitzea. Geratu zaidan pena da euskaraz ezin argitaratu izana. Iaz, proiektua prestatu nuenean, euskaraz egin nuen maketa aurkezpenarako. Audio-liburu moduko bat atera nuen Uxue Alberdirenkin, eta azkenean ezin izan dugu aurrera eraman. Eñaut Elorrietak abesti bat dauka Inesa Gaxeni buruz, eta hortik atera nuen libururako ideia.

Ipuin ilustratua da, beraz, ilustrazioak ere garrantzi handia dauka. Elsa Sabater izan da ilustratzailea.

Bai, niretzako oso ondo geratu dira ilustrazioak. Ez dira marrazki klasikoak. Marrazki bizidunen estilora egindakoak dira, modernoagoak, kolore bizidunak... Errealismo itxurako pertsonaiak dira, benetan ziren moduko antzerakoak. Emakumeak ziren azken batean, ez ziren beti kontatu izan diguten moduko sorgin gaiztoak. Emakume jakintsuak ziren, gizartetik kanpo zeuden besteek baino gehiago pentsatu edo irakurtzen zutelako, eta ez ziren guri kontatu izan diguten modukoak. Gure buruetan sorginak zatarrak dira, gaiztoak, beti beltzez jantzita... Batzuei ez zitzaion interesatzen emakume horien jakituria, beldurra edo inbidia zieten eta erre edo urkatu egiten zituzten herriko plazan, inork ez zezan haien bidea hartu. Honelakoak ez ditut hain gordin kontatzen ipuinean, bestela umeak beldurtuko nituzke, baina sorginen sorrera non dagoen azaltzen saiatzen naiz, beraiek ulertzeko moduan.

Liburuarekin batera, Inesa Gaxenen panpina ere sortu duzue. Zein asmo duzu panpin horrekin?

Marketin kontua izan da. Liburua ezagutzera emateko zozketa bat egin nahi genuen Instagramen eta ikusi dut horrelakoetan liburuaz gain beste zerbait ere oparitzen dutela. Valentziako emakume batek egin dizkit pertsonaia bakoitzaren panpinak, baina oso gutxi egin ditugu, garestia delako. Eskuz eginak daude, eta ez ditugu salgai jarriko. Zozketaren baterako eta zuzeneko aurkezpenak egiten ditugunerako erabiliko ditugu, umeek ikus ditzaten pertsonaiak nolakoak ziren.

Umeen artean irakurtzeko ohitura sustatzeko helburua du zure proiektuak.

Bai, hori da, gaur egungo umeek gero eta pazientzia gutxiago daukate eta liburu



luzeak ez dituzte irakurtzen. Nire liburuek 30 bat orrialde izango dituzte, testu gutxirekin. Hemen, Bartzelonan, haur eta gazte literaturako liburu asko argitaratzen dira, baina euskaraz faltan botatzen ditut nire gustuko ipuinak. Ni saiatzen ari naiz *Inesa Gaxen* euskaraz argitaratzeko, iruditzen zait behar dugula liburu hau euskaraz.

Aurrerantzean zein proiektu dituzu esku artean?

Esan bezala, bigarren liburua apirilean kaleratuko dut eta hirugarrena irailean. Dena ondo badoa, datorren urtean beste hiru liburu kaleratzeaz hitz egin genuen. Baina konpententzia handia dago, eta ez da erraza izango. Gauza asko eta onak egiten dira. Guk ere zerbait berezia sartu nahi izan dugu liburuan, eta bukaeran umeentzako galdetegi moduko bat sortu dugu, modu ludikoan. Jolasen bidez liburuaren erreposaoa egiteko ariketa batzuk dira.

Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Momentuz Bartzelonan nago, eta gustura bizi naiz hemen, baina ez dakit noiz arte izango den. Pilak kargatzeko beharra daukadan bakoitzean itzultzen naiz herrira. Nire ilusioa argitaletxe batean lan egitea da, erabakiak hartu ahal izateko. Askok aldatu da lan egiteko modua ere. Lehen, autoreek eramaten zuten idatzia argitaletxeetara eta gustatzen bazitzairen, argitaratzen zuten. Gaur egun argitaletxeek eurek jotzen dute sare sozialetan jarraitzaile asko dituzten pertsonengana, liburu bat idazteko eskaintza eginez, jarraitzaile horiek erosle izan daitezkeelakoan.

NABOJUHA GAILANI ETA NADJIA DJAMAI

Emakume sahararrak

✍️ 🗣️ Ainara Argoitia

Sahararrak dira Nabujuha Gailani eta Nadjia Djamai, baina Aljeriako basamortuan, errefuxiatuentzako Tindoufeko kanpalekuan, jaio eta hazi dira. 'Oporrak Bakean' programari esker irten ziren estreinakoz sorlekutik eta beste mundu bat bazela jabetu ziren. Urte batzuk geroago, etsita, Europarako bidea hartu zuten berriro, aukera bila. Gaur, Mendaron bizi dira, eta Udaleko Berdintasun Batzordeko kide dira. Aktibistak dira, saharar herriaren autodeterminazioa eta feminismoa dira beren bi borrokak, eta bai baterako zein besterako, berebizikoa ikusten dute emakumeen ahalduntzea eta haien arteko sareak ehuntzea. Horregatik, Emakumeen topaketa egitea proposatu zuten atzorako Mendaron, Berdintasun Sailaren laguntzarekin.



Nadjia Djamai eta Nabujuha Gailani. Haien ekimenez antolatu zuten atzo Mendaron Emakumeen Topaketa.

“Sahararren borrokaren funtsezko zutabe dira emakumeak”

Emakumeen topaketa antolatu zenuten atzo, Udaleko Berdintasun Sailaren elkarlanean. Zergatik eta zertarako?

Nabujuha Gailani: Sortu nahi nuen topaleku bat emakumeok geure gauzez hitz egiteko. Iruditzen zait askotan ezagutu gabe epaitzen dugula ondokoa, baina funtsean, hango eta hemengo emakumeok gauza asko partekatzen ditugula. Migrante izanda, baina, ez zait erraza beste emakume batzuegana gerturatzea, eta horregatik Uxueri [Uxue Alonso, Berdintasun teknikaria] proposatu nion bidea egiteko eta emakumeok elkarri entzuteko espazio seguru bat sortzeko. Eskerrak eman nahi dizkiot Uxueri, urtebete daramadalako Mendaron eta bera izan delako komunitaterako atea zabaldu diguna, bera ezagutu arte ez geneukalako ezeren berri eta galduta sentitzen ginelako hemen. Berdintasun

Batzordea badago Mendaron eta guk biok hartzen dugu parte bertan, baina iruditzen zitzaidan behar zela beste zerbait, hain ofiziala ez dena. Ikusiko dugu zer ematen duen [atzokoaz], baina ondo legoke emakumeen taldea sortzea. Era berean, emakume sahararrak izanda, beti sentitu dugu gure herriaren borrokaz eta gure herriaren zutabe nagusi diren emakumeen egoeraz hitz egiteko beharra ere, eta horretarako ere, aukera behar genuen.

Mendebaldeko Saharako askapen mugimendu nazionalak 50 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Nola bizi duzue orain okupazioaren kontrako borroka Euskal Herritik? Zer iristen zaizue handik?

Nadjia Djamai: Oso gogorra da. Nik hilabete egin dut han orain, eta errealitatea are da

gogorragoa. Kanpalekuan bizi direnak aspertu dira zain egoteaz. Emakumeak eta umeak baino ez dira ikusten, gizon sahararrak frontera joaten direlako hiru hilabetez, txandaka. Gaztetxoan artean ere borrokarako gogo izugarria dago eta denak daude armak hartzeko prest, ez dutelako etorkizunik ikusten; etsita daude. Koinatua daukat orain Euskal Herrian, Bermeon. Sahararen Aldeko Elkartearen bitartez etorri da, ebakuntza bat egitera eta zain dago, belaunetik behera zisko eginda. Ezagutzen nuen Arrasaten bizi zen saharar bat aldiro joaten zena hara, Fronte Polisarioarekin borrokatzera, baina joan zen azkeneko aldian ez zen itzuli.

Ez dirudi erraza, baina itxaropena omen da azkena galdu behar dena. Argirik ikusten duzue?

Nabjuha G.: Ez. Basamortuan hazi gara gu, hutsarekin, hein batean nazioartetik iristen zen laguntzari esker. Hondarrarekin jolasten ematen genuen eguna umetan. Pozik bizi ginen, besterik ez zelakoan munduan. *Oporrak Bakean* programarekin handik irten ginenean jabetu ginen hura ez zela bizimodua. Horregatik ulertzen dut gerrarako adinik ez dutenak ere Fronte Polisarioak deitu zain egotea. Umetan gurasoek esaten ziguten ikasteko, saiatzeko gogor, ikasten zuenarentzat beti izango zela aukeraren bat-eta, baina sahararrok badakigu han ez daukagula ezertarako aukerarik. Ni neu 12 urterekin joan nintzen Aljeriara ikastera. Urtean behin bakarrik itzultzen nintzen etxera, udan, eta badakit zein gogorra den adin horretan etxekoengandik banandu eta barneko ikasle moduan joatea kanpora, bai eta gureak bezalako gurasoentzat zein ahalegin ekonomiko handia den gu ikastera bidaltzea ere. Zuzenbide ikasketak amaitu nituen, eta zertarako? Ezertarako, eta asko daude nire egoera berean. Kubara ikastera joan ahal izan direnek izan dezakete aukeraren bat, baina Aljerian ikasi dugunok, nekez. Gure gurasoek apustu hori egin zuten, sinetsita guretzat ez ezik familiarentzat ere ona izango zela, atzerritik lagunduko dien senideren bat ez duten sahararrek zaila dutelako gaur bizirautean.

Sahararen aldeko borrokan zein paper jokatu dute emakumeek?

Nabjuha G.: Borrokaren funtsezko zutabe dira.

"Errefuxiatuentzako kanpalekuetan bizi diren gaztetxoan artean ere borrokarako gogo izugarria dago eta denak daude armak hartzeko prest, etorkizunik ikusten ez dutelako"

Gizonezkoak borrokara joan zirenean, emakumeak bakarrik geratu ziren kanpalekuetan, eta haiek hasi zuten guztia. Haiek sortu zituzten eskolak, haurtzaindegiak, egitura politikoak, dena, eta haiek arduratu dira haurren hezkuntzaz, zaintzaz eta kulturaren transmisioaz. Horrek egiten du garrantzitsu emakumearen rola gure kausan. Erresistentziaren ikur dira. Beste herrialde arabiarrekin eta musulmanekin alderatuta, eskubide gehiago ere baditugu emakume sahararrok, beharbada horrexegatik.

Nola iritsi zineten zuek Euskal Herrira?

Nadja D.: *Oporrak udan* programaren bitartez irten nintzen ni estreinakoz errefuxiatuen kanpalekutik, Laredora (Cantabria, Espainia), umetan. 2006an, umetako harrera familiak Laredora itzultzeko eskatu zidan, aukera gehiago izango nituelako hemen ikasteko eta etorkizuna eraikitzeko. Bisatua egin zidaten eta halaxe etorri nintzen 18 urte bete berri, bakar-bakarrik. Urtebete egin nuen paperik gabe Laredon, baina 2007an eskuratu nituen. Sei urte egin nituen familia haren etxean bizitzen, eta ostalaritzan lanean. Aldizkako beste lan batzuk ere izan nituen gero eta tarte horretan sorterrira itzuli batzuk ere egin nituen. 2016an lanik gabe gelditu nintzen, eta langabezia kobratzen hasi nintzen, eta amaitu zitzaidanean, Prepara prestazioa eskatu nuen, eginahalak eginda ere ez nuelako lanik topatzen. Zapia traba handia zaigu lana topatzeko. Gasteizera aldatu nintzen Laredotik, handik Donostiara gero, lanerako aukera gehiago izango nituelakoan, baina ezer ez. Tolosan ere bizi izan naiz lau urtez eta uztailetik Mendaron nago, lagun euskaldun batek topatutako etxe batean, alokairuan. Sorterrian ezertarako aukerarik ez nuelako eta etxekoei lagundu beharra sentitzen duelako irten nintzen handik, gazte. Gu sei nebarreba izan gara eta gure ama bizi ere ez da egin gu hazteko. Bizimodu hobea eman nahi

nion, baina lanik topatu ezean itzuli egingo naiz, hoguei urte daramatzadalako hemen bakarrik eta neuri ere ez zaidalako erraza hemen bizitzen. Egun, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ari naiz jasotzen, baina nik lan egin nahi dut, alokairua ordaindu eta etxekoei laguntzeko. Batzuetan sentitzen dut mespretxuz begiratzen didala jendeak, baina gauza bakarria eskatzen diet: ez uste izateko txarrera gatozenik; lan bila gatoz, derrigorrean, gure herrian ez dagoelako biziraun beste aukerarik.

Unibertsitate ikasketak egin zenituen, Nabujuha, baina zaintzan bakarrik topatu duzu lana. 'Ikasi eta hobeto bizitzeko aukerak iritsiko dira'. Ez da bete zure kasuan, baina ba al da beste aukerarik?.

Nabujuha G.: Hori ere hala da. 2015ean irten nintzen ni kanpalekutik. Zuzenbide ikasketak bukatu berri, *Oporrak Bakean* programako begirale moduan hartu ninduten, eta umeekin batera etorri nintzen. Haiek itzuli ziren, baina ni Guadalajaran (Espainian) gelditu nintzen, lanerako aukera gehiago izango nituelakoan. Etxeko langile moduan jardun nintzen lanean euskal jatorriko familia baten etxean, eta nagusiak hil zirenean, semeak Euskal Herrira etortzeko gomendatu zidan. Hala iritsi nintzen ni Hernanira. Andra-gizon edadetu bi zaindu nituen hiru urtez eta emaztea hil zenean familiak berak topatu zidan beste lan bat, zaintzan. Iaz arte zaindu nuen emakume hori, haurraz erditu nintzen arte. Saiatu nintzen andrea bizi zen lekutik gertuagoan topatzen etxea, baina Mendaron lortu genuen etxea, lagun euskaldun baten bitartez. Migratzaile izanda zaila zaigu etxea alokatuko digunik topatzea. Alokatzan duenak beldurra du eta ulertzen diet, baina migratzaile guztiak ez gara txarrak, hemen bertako denak onak ez diren bezala.

Aurreragoko baten lan eskaintza bat ikusi nuen Deban, eta joan nintzen, baina zaintza lanetarako titulu soziosanitarioa behar nuela esan zidaten eta orain zain nago ikastaro hori noiz irtengo, apuntatzeko. 7 urtean lanean jardun naizenez 80 bat orduko ikastaroa bete beharko dudala esan didate. Bitartean, hizkuntzak ikasten ari naiz. Gaztelania eskoletan nabil Elgoibarren, eta euskara eskolak jasotzen ditut Mendaron. Lanerako ikasi nahi dut, baina baita alabari eskolako lanetan laguntzeko ere, euskaraz eskolatu dugulako. Era

berean, Aljerian egin nituen Zuzenbide ikasketak baliozkotzeko ikasten ere ari naiz. Izan ere, han ikasitakoak hemen ez dauka baliorik, bi urteko ikasketa osagarri batzuk egin ezean.

Zer topatu duzue zuek hemen? Zeren beharra sentitu duzue?

Nabujuha G.: Urtebete daramat Mendaron eta kostatzen ari zait herriko sentitzea. Uxue ezagutzea ate bat zabaltzea izan da niretzat. Berdintasun batzordera batzeak aukera eman dit beste emakume batzuk ezagutzeko, eta txikia izanda ere, badut orain inguru bat, konfiantzazko jende bat. Gehienentzat, baina, ikusezinak gara. Nik gustura hartzen ditut galdezka inguratzen zaizkidanak, aukera ematen didatelako neure berri emateko eta erakusteko pertsona naizela. Umea eskolatzeak ere aukera eman dit beste guraso batzuk ezagutzeko, eta orain, komunitatekoago sentitzen naiz. Eskolarekin ez naiz beti eroso sentitu, baina iruditzen zait lehen harrera horretan eskolak paper garrantzitsua betetzen duela.

Nadja D.: Niretzat ere laguntza handia izan da Uxue. Tolosan bizi izan nintzen denboran, errazagoa izan nuen bertakotzea, batetik, badauzkadalako han emakume euskaldunekin ezkonduetako lehengusuak, eta bestetik, Tolosako Udalak ere sentiberatasun berezia duelako Saharako auziarekin.

Herritarrengandik gertuen dagoen instituzioan diharduzu lanean zuek, Uxue, Berdintasun teknikari gisa. Zer ikusten duzue talaia horretatik?

Uxue A.: Askotan akordatzen naiz Euskara taldekoekin, Arnorekin eta UEMArekin elkarlanean antolatuta genuen *Desde Extremadura al euskara* hitzaldian Jon Maiak esan zituenekin. Nik uste dut guztiok dugula joera migranteak ikusezin egiteko eta ghetifikatzeko, eta hori amaitu behar dugu. Horretarako oso garrantzitsua irizten diot Mendaron harrera-plan bat diseinatzeari, kanpotik iristen direnei geuretzako nahiko genukeen harrera egiteko. Oso garbi daukat, era berean, gauza asko ez direla instituzioetatik aldatzen, herritik baizik, behetik gora. Horretarako, beharrezko ikusten dut atzokoa bezalako elkarguneak sortzea, emakumeen sareak ehuntzea eta pertsona arrazializatuek ere ahotsa izatea feminismoan.

ATZERA BEGIRA ...



1 963ko martxoan sortu zuten hiru herritarrek Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea, garai hartan euskarak eta orduko euskaldunek bizi zuten egoera ilunari argi apur bat emateko helburuarekin. Sortu hiru lagunek egin zuten, baina bi urtera 1.400 bazkide bildu ziren elkartearen bueltan. Elgoibartar askoren euskaltzale tasuna esnarazteko balio izan zuen Elgoibarko Izarrak.

Zenbat egin duen elkarteak, ordutik, gure herria euskaldunagoa izateko! Asko egin du, izugarri. Eta lortu duena ere asko izan da, ametsa oraindik urruti badago ere.

Garai bakoitzeko beharrei erantzuten jakin du elkarteak; unean-uneke gizartera eta egoera soziopolitikora egokitzen. Elkarteak sortu zutenean, adibidez, kalean ez zuen inork euskararik egiten, jende askorentzat "euskarak ez zuen Maltzagara joateko ere balio". Frankismoaren atzaparrak gainean genituen, beldurra nagusi jendearen artean, legeak kontra, dirurik apenas... Baina bazegoen bizinahi edo euskaldun izateko nahi bat, zerbait egiteko gogoia.

Asko egin zuten 27 urtean (1963-1990), izugarri, eta, besteak beste, horregatik gara

garena. Gure aurrekoek egin zutelako, gure aurrekoak izan zirelako.

Bigarren etapan, 1991tik aurrera, baldintzak bestelakoak izan dira. Egoera politikoa asko aldatu zen eta errazagoa izan da egitea eta eragitea. Udalaren eta bestelako erakunde publikoen babesa eta dirulaguntzak izan ditugu, soziolinguistikaz badakigu zerbait, euskara elkarte mugimendua batzen duen Topaguneko kide gara...


Proiektu eta ekimen asko sortu eta martxan jarri ditugu 33 urteotan, eta batzuek izugarrizko eragina izan dute herrian.

Proiektuak eta ekimenak garrantzitsuak dira, baina 60 urteko historia honetako benetako protagonista jendea da. Herritarrak. Elgoibartarrak. Elkarteak jendeak sortu zuten; jendeak eman zion babesa eta dirua elkarteari; jendeak sortu zituen, ditu, proiektuak; jendeak erabaki zuen, du, proiektu horiekin bat egitea... Jendeak egin du eta jendearentzat egin da. Jendea dago Elgoibarko Izarraren atzean, eta Elgoibarko Izarra jendea da, ezer izatekotan. Elgoibarko euskara jendearen 60 urteko historia daukagu atzera begiratzen badugu.

**Jendea dago
Elgoibarko Izarraren atzean,
eta Elgoibarko Izarra jendea da,
ezer izatekotan.**

ELGOIBAR HERRI EUSKALDUNA IZATEKO 60 URTEKO AHALEGINA

... AURRERA EGITEKO



Eta orain, zer? 60 urteko ahaleginaren ondoren, zer da Elgoibarko Izarrari egitea dagokiona?

Oraintxe dihardugu hurrengo bost urteetarako bisioa eta ildo estrategikoak aztertzen, eta oraindik behin betiko erabakirik hartu ez badugu ere, bi lan lerro oso argi dauzkagu:

- Bata, elkarlanari lotuta dago, sarean lan egiteari lotuta, bakarrik edota bakoitzak bere aldetik bakarrik eginda ez dugulako lortuko. Sarean antolatu eta sarean egin nahi dugu. Bakoitzak berean egiten, baina denon artean geurea ere egin behar dugula sinetsita. Elkarrekin eta elkarrentzat eginda. Sarean, herri moduan pentsatu eta erabakitze, herri moduan egiteko. Batera eta norabide berean, bat bagina moduan. Gainera, herrigintza ere jorratu nahiko genuke, Elgoibar hobe eta jendarte justu baten alde egiteko helburuarekin.

- Bestea, berriz, euskalduntasunari lotuta dator, euskal kontzientziaren lanketari lotuta. Izan ere, euskara jakitea ezinbestekoa da euskaldun izateko, baina ez da nahikoa. Euskalduntasuna landu egin behar dugu.

Sarean antolatu eta sarean egin nahi dugu, eragile bakoitzak bereari eutsi eta denon artean geurea ere egin behar dugula sinetsita.

Euskaldun izateko nahia sustatu, euskaraz egiteko borondatea areagotu. Izan ere, gure herrian euskararen erabilera ez da berez etorriko. Nahi dugulako egingo dugu, edo ez dugu egingo. Horregatik landu behar dugu hizkuntzari lotutako kontzientzia, kontzientziarik

gabeko ezagutza edota erabilera hauskorrek direlako, sustrairik gabekoak. Kontzientzia lantzeko, kulturegintza eta euskalgintza batera eta norabide berean lantzea da gure asmoa,

kulturegintza euskalgintzaren erregaia dela uste dugulako. Gainera, formazioa, dibulgazioa eta ahalduntze-eskola ere landu nahi ditugu. Formazioa eta dibulgazioa, biziko bagara jantzi beharra daukagulako. Eta euskaldunon ahalduntze-eskola jende ahaldundua behar dugulako, entitate ahaldunduak, arduradun ahaldunduak, hizkuntz-komunitate ahaldundua. Zertarako? Pentsatzen duguna esateko. Esaten duguna sinesteko. Sinesten duguna egiteko. Egiten duguna sinesteko.

60 urte bete ditu Elgoibarko Izarrak eta asko egin eta lortu du orain arte, izugarri. Baina egiten eta eragiten jarraitu behar dugu ametsaren bidean.

Unax Ansolak hirugarren egin du bere mailan, Elgoibarko Aurreku Txapelketan



Domekan jokatu zuten Elgoibarko Aurreku Txapelketa Herriko Antzokian, eta Gipuzkoako hainbat herritako dantzariak hartu zuten parte, tartean Elgoibarkoak. 7 eta 15 urte bitarteko dantzariak hartu zuten parte, eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ordezkariak zazpi izan ziren: Duna Santos, Elaia Etxaniz, Uxue Cabrera, Haizea Luluaga, Unax Ansola, Sare Meabasterretxea

eta Irene Toledano. Arduradunek jakinarazi dutenez, maila ona eman zuten guztiek, baina dantzari batzuk urduri egon zirela aipatu dute, Elgoibarren jokatzeko zutelako. Era berean, Unax Ansolak bere mailan eskuratu duen hirugarren postua nabarmendu dute. Hurrengo kanporaketa hilaren 25ean jokatu dute, Oiartzunen, eta Elgoibartik Duna Santosek eta Unax Ansolak hartuko dute parte.

'Go!azen' kontzertua gaur, Herriko Antzokian



Go!azen 9.0 telesaileko aktoreak igoko dira gaur Herriko Antzokiko oholtzara, eta denboraldiaren errepaso egingo dute kantuen bitartez. Azken denboraldiko sei aktore etorriko dira, eta Basakabiko istorioak gogoratuko dituzte. Bi emanaldi egongo dira, 17:00etan bata eta 19:00etan bestea. Bigarren saiorako sarrerak agortuta daude, baina 17:00etako saiorako oraindik geratzen dira. [Herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) atarian edota lehiatilan ere erosteko aukera dago.

'Jon Beldurgabea' familia antzerkia domekan, Herriko Antzokian



Jon Beldurgabea familia antzerkia ekarriko du Txalo Produzioak konpainiak domekan, Elgoibarrera. Jon gazteak ez daki beldurra zer den, beraz, haren aitak aholku bat emango dio: goxo-goxo bizi den etxea utzita, beldurraren bila abiatzea. Jonek aurre egingo die maitagarriegia den mamu bati, pirata bati eta kapadun banpiro bati. Ikasiko al du beldurra zer den?. 16:30ean hasiko da emanaldia. Sarrerak aurrez erosi daitezke herrikoantzokia.eus webgunean, eta bestela, lehiatilan bertan.

Ehun bat lagun bildu dira Ramadanari buruzko hitzaldian



Auzoko Familiak egitasmoko familia eta eragileak "oso pozik" daude Ramadani buruz antolatu duten solasaldiak eta horren osteko mokaduak izan duten harrerarekin. Ehun bat lagun batu ziren Aita Agirre kulturgunean, euskaratik urrun eta hurbil dauden familia eta banako ugari, belaunaldi guztietakoak eta Elgoibar zein inguruko herrietakoak. Asociación Cultural Onda Euskadiko kideek eman zuten Ramadanaren inguruko hitzaldia, eta, besteak beste, zertan datzan eta musulmanentzat duen garrantziaz mintzatu ziren. Komunitate musulmanak egutegi islamikoaren bederatzigarren hilabetean ospatzen du Ramadana. Aurtengoa martxoaren 23tik apirilaren 21era izango da. Solasaldiaren ostean, Marokoko jakiak dastatzeko aukera izan zuten, Elgoibarko familiek gozoak eta tea prestatu baitzituzten.

Liburuak aukeratzen ikasteko tailerraren bigarren saioa egingo dute datorren astean

Dorleta Kortazar ipuin kontalaria ipuinak aukeratzen ikasteko tailerra ematen ari da Udal Liburutegian. Umeen hezkuntzan ipuinek duten garrantzia nabarmendu dute adituek, irudimena eta fantasia lantzeko, bereziki. Gurasoekin harremana sendotzeko ere balio dute ipuinek, baina oso garrantzitsua da ipuinak ondo aukeratzea. Bigarren saioa hilaren 23an izango da, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko: 943 743 525.

Elai Alai, Andra Mari eta Argia dantza taldeen emanaldia izango da hilaren 25ean, Kalegoen Plazan



Haritz Dantza Taldearen 50. urteurreneko ekintzen barruan dantza jaialdia antolatu dute martxoaren 25erako, eta Euskal Herriko hiru dantza talde entzutetsu gonbidatu dituzte: Elai Alai (Portugalete), Andra Mari (Galdakao) eta Argia (Donostia). 12:30ean hasiko da emanaldia, Kalegoen plazan (euria bada, Herriko Antzokian). Arratsalderako, bestalde, Inguma dantza taldearekin kale-erromeria iragarri dute. 18:00etan hasiko da, King-Kongen.

'Ez dok ero, desentxufatuta' antzezlan izango da Mendaron



Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak Mikelote eta Pantxo izango dira. Bikote artistikoa desegin da, belaunaldi berriek haien lekua hartu dutelako. Pantxok ondo hartu du behartutako erretiroa, baina Mikelotek ez du bukaera onartu nahi. Egun batean Mikelote, antzerkilari andante estrafalariora, Pantxoren bila joango da, trasteak prestatu eta Euska Herrian barna joateko, herriz herri antzeztera, *Euskal Antzerkiak Behar Gaitu* uste inozoarekin. Martxoaren 26an izango da, 18:30ean, San Agustin kulturgunean, doan.

Euskalduntasuna landuko dute Elgoibarren



Pentsamendua eta jakintza lantzeko, euskalduntasunean sakontzeko eta elgoibartarrak norbanako eta komunitate moduan ahalduzko, *Zergatik eta zertarako euskaldun?* ekimena antolatu du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Udalaren laguntzarekin. Ekimen horren baitan bi lagun gonbidatuko dituzte Elgoibarrera: Jon Sarasua unibertsitateko irakasle, kulturgile eta munduko hainbat komunitatetan hizkuntza-lankidetzan ari dena, eta Ibai Iztueta, Giza eta gizarte zintzietan doktorea eta *Cultura vasca vs Euskal kultura* liburuaren egilea.

Hilaren 23an, Sarasua, eta 30ean, Iztueta

Euskal herrigintzak, hainbat arlotan, ekimen eta meritu handiko aroa bizi izan du azken hamarraldi askotan, baina badira arrazoiak pentsatzeko ibilbidean behelainoa sartu zaigula, iparra lausotzen duten faktore berriak gurutzatu direla. Horiek aletu eta galdera baten inguruan jardungo du Sarasuak martxoaren 23an Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etatik aurrera: Zein izan daitezke norabide edo ipar baten elementuak? Eta, nolakoa izan daiteke behar dugun erreakzioaren egitura?

Astebete geroago iritsiko da Elgoibarrera Iztueta, martxoaren 30ean. Zenbaitek euskal kultura euskarazkoa baino ez dela dio, beste zenbaitek, berriz, espainolez edota frantsesez egindakoa ere badela euskal kultura eta horixe izango du hitzaldirako gaia Iztuetak (Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan)

Arte Tailerrak antolatu ditu Egur-ek udaberriko oporraldirako

LH3tik aurrerako umeentzako eskaintza antolatu du Egur Arte Tailerrak udaberriko oporraldirako, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Apirilak 3,4 eta 5erako komiki tailerra antolatu dute, eta apirilak 11,12, 13 eta 14rako, sormen tailerra. 09:30etik 12:30erako ordutegia izango dute bi tailerrok eta prezioak ere zehaztu dituzte. Komiki tailerrarako 24 euro ordaindu beharko dira, eta sormen tailerrarako, 32 euro. Bi tailerretako izena ematen duenak, berriz, 50 euro ordaindu beharko ditu. Merkatu plazako 1. solairuan dago Egur Arte Tailerraren lokala. Egurarte@gmail.com.

Bertso saio batekin hasiko dute gaur Mendaron Motxailen asteburua



Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Joanes Illarregi arituko dira gaur kantuan Mendaron *Zerua motxailen aterpe* bertso saioan, Ainhoa Urbietaren agindutara. Motxaila asteburuaren atarikoa izango da, eta herriko bertso eskolako ikasleek ere parte hartuko dute. Bihar, berriz, Aitzbeltzeko kobara igotzeko eguna izango dute. 09:00etan abiatuko dira Gaztetxetik eta han nork bere arrastoa lagako du. Poesia, musika, ipuin kontalariak, hamaiketako... denetarik izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Ondoren, eta ohi legez, aurrez txartela jasoa dutenek elkarrekin bazkalduko dute Gaztetxean. Urteroko menua izango dute: tzatzikia, salmorejoa, motxaila potajea edo makarroiak, eta azkenburukoa. Bazkalostean, Miren Gisasola eibartarrarekin hasiko dute poteoa eta 22:30ean Basapiztiak talde mendaroarrak kontzertua emango du Gaztetxean. Ondoren, Beasaingo Muxutruk taldearekin erromeria izango dute.

Belaunaldien arteko topaketak egin dituzte Mekan

El kartasun guñeak sortu eta belaunaldien arteko topaketak egin zituzten joan zen astean Mekan. Meka komunitatearen parte diren sortzaile, ikasle ohi eta herritarrek hartu zuten parte, eta beraien esperientziak partekatu zituzten. Ikasketa prozesuan eman diren aldaketak, gaur egungo baliabide materialak eta merkatuaren beharrak izan zituzten hizpide.

Astehenean, Automozio eta Galdaragintza mintegiak antolatutako elkartasun guñean hartu zuten parte hainbat jubilatuk. Albitzuriko eskolako instalakuntzak bisitatu eta ibilgailuen diagnosian azken urteotan eman diren aldaketak ikusi zituzten.



Astearte eta asteazkenean, bestalde, Ezenarroko eraikuntzan egin zituzten topaketak. Bertan, administrarritza, gizarte eta kultur ekintzak eta osasun familiariko ikasleekin aritu ziren esperientziak trukatzeko. Ikasteko metodologia berriak, zahartzaroaren simuladoreak, exoeskeletoen erabilera eta beste hainbat teknika desberdin ikusi eta gozatzeko aukera izan zuten gonbidatuek. Antolatzaileen esanetan, esperientzia oso polita izan da MEKAN bitzakoa.

Txori habiak jartzeko eta hegaziak ezagutzeko irteera antolatu dute martxoaren 25erako

Morkaiko Mendizale elkarteak, Elgoibarko Baso Biziak elkarteak eta Atxutxiamaikak elkarlanean antolatutako *Gure natura ezagutzen* programaren baitan txori habiak jartzeko eta hegaziak ezagutzeko irteera egingo dute hilaren 25ean. Asier Sarasua Aranberri (Eibar, 1969) hegaztien inguruko azalpenak emango ditu eta ibilbidean zehar txori habiak jartzeko geldialdiak ere egingo dituzte. Sarasua biologoa, filologoa, idazlea eta blogaria da, eta naturzalea eta txorizalea izan da umetatik. Euskal Herriko hegaztiei buruzko *txoria.eus* guñearen sortzailea ere bada. Maltzagarako bide hasieran batuko dira 09:30ean. Izena emateko epea zabalik dago labur.eus//txoriatxori helbidean.

Eskola jazarpenari buruzko hitzaldia antolatu dute eguaztenerako

Treba Gurasoak ekimenak eta Elgoibarko Udalak *Bullying egoerak minimizatzeko ingurune seguruak nola sortu* izeneko hitzaldia antolatu dute martxoaren 22rako. Aita Agirre Kulturgunean izango da, 18:00etan, eta Ortzadar elkarte kideek emango dute saioa. Doan izango da, eta gaztelaniaz. Hitzaldiaren helburua da seme-alabentzako ingurune seguru eta babesleak sortzen laguntzea, balizko arrisku-egoerak eta jazarpen edo eskola jazarpen egoerak eta identifikatzen ikastea. Era berean, haurren eta nerabeen hezkuntzan familiaren babes-funtzioak duen garrantzia sustatuko dute, eta jazarpen-egoerak detektatzeko eta identifikatzeko oinarriko ezagutzak eta informazioa emango dute. Izena emateko 943 741 050 telefonora deitu edo gazteria@elgoibar.eus helbidera idatzi behar da.

Udal Liburutegiko txartela erabiltzeko kanpaina hasi dute

Gotzon Garate Udal Liburutegiak txartela erabiltzeko kanpaina hasi du. Aurrerantzean, beraz, mailegu zerbitzua erabiltzeko beharrezkoa

izango da bazkide txartela aurkeztea. Nahi duenak txartel digitala deskargatu dezake helbide honetan: www.katalogoak.euskadi.eus/mopac/

Osakidetzako azpikontrataturako garbitzaileak greban daude eta apirilaren 3ra arte luzatuko dute protesta

Osakidetzako azpikontrataturako garbitzaileak greban daude, eta eragina bistakoa da anbulatorio eta ospitaleetan. 2018tik hitzarmena berritu gabe daude garbitzaileak, tarte horretan 51 bilera egin badituzte ere auzia bideratzeko, sindikatuen arabera. Era berean, aurreko hitzarmenean, garbitzaileen baldintzak Osakidetzako gainontzeko langileenekin homologatzeko neurriak onartu zituzten aldeak (sindikatuak, ISS Facility Services S.A. azpikontrataturako enpresak, langileek eta Osakidetzak), baina azpikontrataturako langile denek ez dute 2012ko, 2019ko, 2020ko eta 2021eko karreretako deialdirik kobratu. Osakidetzaren baitako langileek, bai, ordea. ELAtik jakinarazi dutenez, ESI Debabarrenean 42 garbitzaile dira azpikontrataturakoak, eta bat ez beste guztiak emakumezkoak dira. Sektorearen feminizazioa ia erabatekoa da beraz, eta ELAn garbi dute hori ere adierazgarria dela auzi honetan: "Gizonak gehiago diren (%80) kale garbitzaileen sektorean, urtero-urtero, arazorik gabe onartzen dute soldatetan KPIaren araberako igoera aplikatzea".

Azpikontrataturako garbitzaileak ere Osakidetzako langileen baldintzekin homologatuta daudela adierazten du beraz hitzarmenak, baina praktikan, enpresak ez dizkie Osakidetzako langileek azken urteotan izan dituzten hobekuntzak aplikatzen, ez behintzat azkeneko konbokatariak irten ondoren kontratatutakoei, eta horregatik, otsailaren 27an planto egin zuten, ELA, LAB, UGT, CCOO, eta ESK sindikatuak deituta. Astebeteko grebaren ostean, ELAkoak ez beste guztiak lanera itzuli ziren martxoaren 5ean, baina orain greban daude berriro denak, eta jakinarazi dute apirilaren 3a arte luzatuko dutela protesta, tarte horretan negoziazioak desblokeatu ezean. Atzo ziren biltzekoak Bilbon negoziatio-mahaikoak, baina edizio hau ixteko orduan bi aukera ikusten zituzten ELAtik: Osakidetzak gutxiengo zerbitzuak handitzeko



ELA

eskatzea Jaurlaritzari edota proposamenen bat egitea. Azkena, Osakidetzako bitartekariak sindikatuei agindu zien 2023ko urtarriletik aurrera karrera profesionaren inguruan dauden igoerak ordainduko zizkietela langileei, baina langileek eta sindikatuak ez zuten onartu, zor zaiena gehiago delako arrazoituta. Egoera horretan, anbulatorio eta ospitaleak zerri eginda eta ospitale atarietan garbitzaileak protestan dituztela (joan zen egunean eta astelehenean elkarretaratzeak egin zituzten Mendaroko ospitaleko atarian), Osakidetzak gutxiengo zerbitzuak handitzeko eskatu dio birritan Jaurlaritzari. ELAtik jakinarazi dute langileek grebara jo zutenean, Mendaroko ospitalean gutxiengoko zerbitzuak asteburuetan izaten den garbitzaile kopuruarekin betetzea (5 langile) eta arrisku handiko guneak garbitzea agindu zuela Jaurlaritzak, larrialdi zerbitzuak eta kirofanoak kasurako. Gerora, langile gehiago gehitu zituzten gutxiengo zerbitzuak betetzeko, baina ELAtik salatu dute arrisku handiko guneak ez ezik, kontsultategiak eta korridoreak garbitzeko agindua ere jaso duela enpresak, eta horregatik, salaketa jarri dute Lan Ikuskaritzan [Atzo ziren biltzekoak sindikatuak, enpresa eta Mendaroko Ospitaleko kudeatzailea, baina edizio hau ixteko orduan ez zegoen artean erabakirik].

Nolanahi ere, langileek salatu dute gatazka ez dela gutxiengoko zerbitzuak handitzearekin konponduko, ez eta Ertzaintza bidalita ere, zenbait elkarretaratzeetan gertatu den bezala. "Garbitzaileak funtsezkoak gara eta baldintza duinetan lan egitea dagokigu, zabaldu dute.

Unai Lopezek irabazi du Elgoibarko eskolarteko xake txapelketa



Zubi-Ondo Xake Taldeak antolatuta, Elgoibarko Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu zuten aurreko domekan. Txapelketa hasi aurretik eman behar zuten izena, eta hogei xakelari gaztetxok eman zuten, denak mutilak. Zubi-Ondo xake taldeak orain gutxi berritu eta

handitu duen taldearen egoitzan jokatu zituzten xake partidak. Lehen ostean, Unai Lopez gailendu zen, eta Julen Mekolalde izan zen txapeldunorde. Lehen bi sailkatuei kopak eman zizkieten saritzat, eta dominak jaso zituzten gainerako parte-hartzaileek.

Mikel Leonek eskuratu du kopa Mintxeta Xake Txapelketan

Astlehenean jokatu zuten Kopako finalarekin amaitu da azken hilabeteetan Mintxetako tabernan jokatu duten Mintxeta xake txapelketaren bigarren ekitaldia. Bi txapelketa jokatzen dituzte, Liga lehenik eta Kopa gero. Lehenengoan 28 xakelarik hartu zuten parte, lau mailatan banatuta. Ligako lehia joan den abenduan amaitu zuten, eta iaz moduan, Felix Manso urnietarra gailendu zen lehen mailan. Markel Kerexetak irabazi zuen bigarren mailako liga txapelketa, Nestor Teruel mendarorak hirugarren mailakoa eta Eneko Egaña mendarorak gailendu zen laugarren mailakoan. Liga bukatu ostean, hamasei xakelarik hartu dute parte azken asteetan jokatu duten Kopa txapelketan. Final-zortzirenetako kanporaketekin hasi ziren eta Juanjo Gomez eta Mikel Leon ailegatu ziren finalera. Gomezek, Eneko Egaña mendarorak, eta, Vicente Santos eta Jon Esnaola elgoibartarrak gainditu zituen kanporaketetan; eta, Leonek Iñaki Burunza eta Iker Ruiz plaentxiarrak eta Jose Ramon Oyarzabal elgoibartarra kanporatu zituen finalerako bidean.



Final parekatua jokatu zuten. Gomezek jokatu zuen pieza zuriekin eta 70 minutuko lehiaren ostean, tablak egin zituzten. Berdinketa apurtzeko jokatu zuten bigarren xake-jokoan Leonek jokatu zuen zuriekin, eta jokalari bakoitzak 15 minutu eduki zituen jokaldiak egiteko. Denbora amaitzea zela eginiko azken jokaldietan, urduritasuna eta presa gailentzen direnean, hobeto moldatzen asmatu zuen Leonek, eta berak eskuratu zuen garaipena.

Apirilaren 1ean eta ekainaren 3an jokatuko dituzte Elgoibarren Gipuzkoako Hiru-txirlo Bola joko txapelketako jardunaldiak

Eibarko Asola Berriko bolatokian jokatu zuten jardunaldiarekin hasi zuten Gipuzkoako 52. Hiru-txirlo Bola joko txapelketa, joan den martxoaren 11n. Aurtengo txapelketak hamabi jardunaldi izango ditu, eta Elgoibarko bolatokietan jokatuko dituzte horietako bi, aurrenekoa Idotorben (apirilak 1) eta azkenaurrekoa Aiastiako bolatokian (ekainak 3). Azpeitiko Garmendipen jokatuko dute azken jardunaldia, ekainaren 10ean. Ohikoa denez, egun horretan, parrekoak erabakitzeaz gain, Lehendakari Saria ere izango da jokoan. Tiraldi guztiak 17:00etan hasiko dira, Azpeitiko azkena kenduta: bazkaria ere tartean egonda, egun horretakoa, betiko legez, 11:00etan hasiko dute. Garaipena etxean gelditu zen txapelketako lehen tiraldian, Garikoitz Rodriguez eibartarrak irabazi zuelako Asola Berriko bolatokian jokatutako jokoa. Egin zituen hiru tiraldietan zortzi txirlo bota zituen (3-2-3). Soralezeko San Andres taldeko Lander Odiala sailkatu zen bigarren, sei txirlo botata, eta Asola Berri taldeko Alex Camposek osatu zuen podiuma (sei txirlo). Unai Loilak (San Migel A) lortu zuen sailkapen onena Elgoibarko bolarien artean, 17. postuan sailkatu zen, hiru txirlo botata. Bergarako San Joxepe bolatokian jokatuko dute bigarren jardunaldia, martxoaren 18an.

**52. GIPUZKOAKO
HIRU TXIRLO
BOLA JOKO
TXAPELKETA
2023**

1- ASOLA BERRI - **Martxoak 11** (Elbar)
2- SAN JOXEPE - **Martxoak 18** (Bergara)
3- FLOREAGA - **Martxoak 25** (Azkoitia)
4- SAN PEDRO - **Apirilak 1** (Elgoibar)
5- SAN ANDRES - **Apirilak 15** (Sorluze)
6- Ustekatea
7- LEINTZ-GATZAGA - **Apirilak 22**
8- ARETXABALETA - **Maiatzak 5** (Sorluze)
9- ELGETA - **Maiatzak 20**
10- LASTUR - **Maiatzak 27**
11- SAN MIGEL - **Ekainak 3** (Elgoibar)

LEHENDAKARI SARIA - 12- GARMENDIPE - Azpeitia

Ekainak 10 11:00etan

1- 85 €
2- 50 €
3- 35 €
4- 20 €
5- 10 €

IZEN EMATEA: 5 €
Ordaindu gabe
botatzeko aukera ere
erago da.

Bola Jokatze 75 urteak
Elgoibar 99 urteak
SARBATZARAKA 100etan

ELGOIBAR UDALA
AZKOITIA UDALA
Bergarako Udala
AZPEITIKO UDALA
SORLUZE UDALA
BILBAO UDALA
GIPUZKOAKO BOLA JOKO FEDERAZIOA
ELGOIBAR UDALA

Antolatzailea

Urregarai mendira irteera antolatu dute domekarako

Markina-Xemein, Ziortza Bolibar eta Aulesti artean dago Urregarai (704 metro) mendia. Hara joateko mendi irteera antolatu du Morkaikok, Elgoibar Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin elkarlanean, domekarako. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 9:30ean, eta autoz joango dira Lekoitzeko mendateraino. Autoak laga eta oinez igoko dira tontorreraino. Paisaia karstiko batean barrena ibiliko dira mendizaleak, eta baseliza ttipi bat ere badago eremu karstiko ikusgarri horretan, Santa Eufemiakoa, hamaika mitotan eta elezaharretan aipatzen dutena. Joxe Miel Barandiaran ikerlari ezagunak jasoa da, adibidez, tontorraren izenaren jatorriari buruzko elezaharra, zeinak dioen urrezko kanpai edo kaxa bat ezkutatzen dela mendiaren barrualdean, eta hortik Urregarai izena. Mendi



irteera nagusi zein gaztetxoei zuzenduta dago, baina umeek ezingo dute bakarrik joan, guraso edo arduradunen batek lagunduta baizik. Sei bat kilometroko ibilaldia izango da.

Arakistain, sei Liga eta Europako Liga irabazi zituen atezain elgoibartarra

Athleticeko atezain izandako Jose Angel Iribarrek 80 urte bete zituen martxoaren 1ean, eta Ibaiganeko klubari mito bihurtu den zarautzitarra omentzeko ekimena bururatu zitzaion, Ligako partida guztietan atezainek beltzez jantzita jokatzeko Txopo ezizenez ezaguna zen Iribarrek erabiltzen zuen janzkera gogora ekarriz. Oihartzun zabala izan du ekimenak eta futbol talde ezberdinetako atezainek egindako keinu guztiek hunkitu egin dutela esan du Iribarrek. Iribarri eginiko omenaldia ikusi eta gero, goi mailako atezain izan zen elgoibartar bat etorri zaio gogora Julian Azkueri, eta halaxe jakinarazi dio BARRENI: "Merezitako omenaldia jaso du Iribarrek, eta egin behar den unean, omendua bizi dela, sarri esaten delako hori, omenaldiak protagonista bizirik dagoela egin behar direla baina gutxitan betetzen delako. Niri, baina, Josetxo Arakistain etorri zait gogora Iribarri eginiko aitortza ikustean, bere sasoiko atezain onenetarikoa izan zen elgoibartarra. Josetxoren arrebarekin topo egin nuen kalean aurreko batean, eta anaiari buruz galdetu nionean esan zidan oraintxe bete dituela 86 urte". Hara hor beste parekotasun bat Iribarrek, eta arrazoi bat gehiago bere ibilbidea



goraipatzeko eta gogora ekartzeko. Arakistainek Espainiako sei Liga txapelketa irabazi zituen Real Madril taldearekin, 60ko hamarkadan, eta 1966ko Europako Kopa ere bai, finalean Belgradeko Partizani 2-1 irabazita. "Sekulako palmaresa dauka". Espainiako selekzioarekin Txileko mundiala ere jokatu zuen 1962an. "Tamalez, elgoibartar askok ez dute guzti honen berri, eta horregatik jodut zuengana, bere berri zabal ezazuen, gazteek eta jakin dezaten nor izan zen futbol munduan Arakistain", azpimarratu du Azkuek. Informazio osatuagoa: barren.eus

Zabalik dago Elgoibarko pala txapelketetarako izena emateko epea

Pala txapelketak antolatzea erabaki du Lagunak Pilota Eskolak. Boluntarioen laguntza eskatu zuten antolakuntza lanetan aritzeko eta bilera bat ere antolatu zuten, baina lagun bakarra aurkeztu zen bilera horretara. Edozein modutan, txapelketak antolatzea erabaki dute pilota eskolakoek eta jarri diote hasiera eguna ere. Apirilaren 11tik ekainaren 23ra bitartean jokatu dituzte Emakumezkoen X. Pala Txapelketa eta Gizonezkoen VI. Pala Txapelketa, Kalegoen plazako frontoian. Apirilaren 1ean bukatuko da izena emateko epea. Parte hartu dezaketen bikoteen kopurua hamabira mugatu dute. Bikote bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu eta



Bizum bidez ordaintzeko aukera ere izango da. Emakumeen txapelketan izena emateko telefonoa (646 801 407 Yolanda Mateos) eta gizonenerako (690 612 927 Aitor Bergua).

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, gauzez edo asteburuetan. Esperientzia eta titulua. **632 229 972**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. **643 505 662**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Etxeko garbiketa lanak ere egiten ditut. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat. **602 490 595**

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **685 724 861**

Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. Asteburuetan. Esperientzia daukat. **666 493 717**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia handia daukat. **655 094 780**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. **643 427 770**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. **642 578 943**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. **640 881 328**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. **613 073 936**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Lan eskarmentua daukat. **632 209 019**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Ospitalean gauak pasatzeko prest. Esperientzia daukat. **722 408 667**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere bai. Esperientzia. **631 125 127**

LHko eta DBHko eskola partikularrak emango nituzke. **626 425 080**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Asteburuetan eta gauzez ere bai. Titulo soziosanitarioa daukat. **631 425 686**

Adinekoak zaintzeko prest nago, esperientzi handia. **631 482 891**
Garbiketa lanak egingo nituzke, goizez. Etxeak, lokalak, enpresak... Esperientzia. **612 444 129**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Gauzez ere bai, ospitalean zein etxean. Titulu soziosanitarioa daukat. **675 625 362**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **688 489 881**

Lanerako premia daukat. Edozein lan egiteko prest. **631 482 891**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Paperak legez daukat. **689 003 537**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Titulu soziosanitarioa daukat. **631 125 127**


Eskaintzak

Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da, Erdi Mailako ziklo baterako. **645 727 320**

Pertsona arduratsua behar da, lanaldi erdian astelehenetik larunbatera, adineko bat zaintzeko eta etxeko lanak eta beste batzuk egiteko. Soziosanitario titulua edukitzea baloratuko da. **687 734 655**

ETXEBIZITZA

Gutxienez bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. **639 542 346**

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administrazioaren Lanbide-Elkartea</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosap@telefonica.net</p>	<p>Etxea erosi berri dut ia oso-osoaan bulegoz bete dagoen eraikin batean. Etxe horretan kokatuko dut nire lantokia. Horretarako, bigarren telefono linea bat jarri berri dut, baina teknikariek esan didate kableentzako hodiak saturatuta daudela, telefono linea bat baino gehiago dituzten bulego bat baino gehiago daudelako. Irtenbide bat badagoela esan didate: hodi berri bat sartzeko obra zibil bat egitea. Jakin nahiko nuke gastu hori neure gain hartu behar ote dudan.</p> <p>Hasiera batean, zuk ez zenuke instalazio hori ordaindu behar. Telefonoa linea bat baino gehiago dituzten bulegoetara ezin diezu kargurik hartu, ziurrenik beharrezkoa dutelako euren lanerako eta beraz eskubidea dutelako. Telefono lineentzako azpiegitura hori komunitatearena da, eta beraz, komunitateari exijituz diezaiokezu zuk behar duzun bigarren linea hori sartu ahal izateko behar duzuna. Horren gastua, bai eta hodi berri hori sartzeko obrarena ere, komunitateak hartu beharko luke bere gain. Beraz, komunitate horretako jabeakide guztiak erantzun beharko diote gastu horri, partaide-kuotaren arabera.</p> <p>ONDORIOA: Eraikineko jabeakide guztiak ordaindu beharko dute obra hori, dagokion partean, baita euren lineekin hodi hori kolapsatzen ari diren horiek ere. Izan ere, bestelako alternatibak ez lirateke batere justuak inorentzat.</p> <p>ASERENA GOXOR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Maia**, asteazkenean 17 urte beteko dituzulako. Familiako guztion partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Ibai!** 2 urte handi! Primeran ospatu genuen! Patxo potolo bat, etxeko partez.




Gure udaberriko larrosak dagoeneko 11 urte zoragarri! Zorionak, **June**, etxeko guztion partez.



Zorionak, **Ainhoa**, astelenean 4 urte egin zenituelako. Gurasoen, osaba-izeben eta amonaren partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **Ane**, martxoaren 22an 5 urte beteko dituzulako. Besarkada bero bat, etxeko partez.



Zorionak, **Danel** eta **Sabin**, 7 urte bete dituzuelako. Patxo potolo bat familiako eta lagunaren partez.



Zorionak, **Nahia!** Asko maite zaitugu, marimatraka!

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



IKUS OPTIKA AUDIO
SOMIA ARRIOLA

30. urteurrenarekin

5 kamera zozkatuko ditugu.



Zozketan parte hartzeko
[@ikus_optika_audio](#)
instagrammean sartu eta
pausoak jarrai itzazu.





Otsaileko irabazlea:
SARA IRIONDO

EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG IAE63421CB

GOIKO FLEXINDUKZIOA



- Indukzio malgua
- 3 zonalde
- Ereku handiak 28 cm
- Hob2 Hood
- Maxi sense
- Direct Touch - Independientea

489 €



Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

17 BARIKUA

17:00 eta 19:00 Kontzertua: Go!Azen. Herriko Antzokian.

18:30 Zine foruma. Lilan.

22:00 'Zerua, motxailen aterpe' bertso saioa. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Joanes Illarregi. Gai-jartzailea: Ainhoa Urbietta. Sarrerak agortuta daude.

18 ZAPATUA

Motxaila eguneko ospakizunak
09:00 Gaztetxetik Aitzbeltzeko kobazulora irteera.

15:00 Bazkaria Gaztetxean.

18:30 Miren Gisasolarekin karropoteoa

22:30 Basapiztiak taldearen kontzertua eta ondoren erromeria, Muxutrukekin.

19 DOMEKA

9:30 Mendi irteera Urregaraira. Morkaikok antolatuta, Herri Eskola eta Ikastolarekin. Mintxetan batuko dira.

16:30 Famili antzerkia: 'Jon beldurgabea'. Herriko Antzokian.

22 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: 'Nola sortu ingurune seguruak bullying egoerak minimizatzen'. Aita Agirre kulturgunean.

23 EGUENA

19:00 Jon Sarasuaren hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan. 'Herrigintzaren behelainotik'. Elgoibarko Izarrak Udalaren laguntzaz antolatuta.

Zinea

'La novia de América'
18 zapatua: 19:00 / 22:15
19 domeka: 19:00
20 astelehena: 21:00

'Close'
22 eguaztena: 21:00

Eta, Debabarrenean zer?

Pirritx, Porrotx eta Marimotots:
'Urteak bete, abenturak bizi'

Martxoak 24, barikua, Ermua Antzokian

Pailazoek 30 urteko ibilbidea ospatuko dute ikuskizun honetan. Bi saio emango dituzte, 17:00etan lehenengoa eta 19:00etan bigarrena.



2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

MARTXOIA

17 BARIKUA
18 ZAPATUA
19 DOMEKA
20 ASTELEHENA
21 MARTITZENA
22 EGUAZTENA
23 EGUENA
24 BARIKUA

Egunez

Arriola
■ Fernandez / ■ Barrenetxea
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Ibañez
Garitaonandia

2023 urte guztian, gaez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384



Tomas Conde Borrajo

2023ko martxoaren 4an hil zen, 65 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere



Paco Juaristi Larrañaga

2023ko otsailaren 22an hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.



I. URTEURRENA

Rosario Garate Goiartzun

2022ko martxoaren 17an hil zen, 102 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
martxoaren 19an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Ramon Torrella Vildosola


2022ko martxoaren 19an hil zen.

***Ez zaitut sekula beldurrari horren ausart begiratzen ikusi,
malkoak dantzengatik aldatzen.***

***Bai, maitia, indartsuenaren sakrifizioa eduki ahal da,
eta ez litzateke inoiz buruan daukazun
boterearen laurdena izatera ailegatuko.***

***Bihotza, nire heroia izango zara betiko,
eta zu ezagutu izana bedeinkatzen dut.***

Zure emazte Aliciak



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Iara
Blazquez
Gil

4 urte, Elgoibar

"Koloreekin jolasean"



Kilian
Fernandez
Leon

4 urte, Mendara

"Itsasontzia"





2023-24 Batxilergoko aurrematrikulazio epea:
Martxoaren 27tik apirilaren 21era arte (on-line zein ikastetxean)

BATXILERGOA



GIZARTE ZIENTZIAK
HUMANITATEAK

OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTZIAK ETA TEKNIKA

ARTISTIKO
MUSIKALA

Giza eta
Gizarte
zientziak

Zientziak

Artea

BIDEA

Bide luzeak gaitu
egin bidelagun,
Euskadik abertzale,
euskarak euskaldun.
Gure gazte-indarrak
bat egin ditzagun,
gizarte bat hobea
eraiki dezagun.

Giza eskubideak
ditugu oinarri,
egunero aztergai,
goizero aldarri.
Lehena sustrai eta
geroa egarri,
ez diogu bizkarrik
emango elkarri.

Gizon-emakumeok
berdinak izaki,
badugu zer eraitsi
eta zer eraiki.
Elkarrekin egina
poliki-poliki
guztion onerako
izango da beti.

Lurra da gizakion
altxor paregabe,
guztion etxe eta
guztion ondare.
Arriskuan ikusten
dugu hala ere,
gutxi batzuen esku,
diruaren mende.

Herri-eskubideak
ditugu gidari,
geure burujabetza
lorpen xuxurlari,
miresmena diogu
askatasunari,
arbasoek amestu
zuten geroari.

Bide luzeak gaitu
honaino ekarri...
Urratsez urrats goaz,
mugarriz mugarri,
lehena sustrai eta
geroa egarri...
Ez diogu bizkarrik
emango elkarri.

